

# Airera Egindako Emisioak Neurtzeko, Zenbatesteko eta Kalkulatzeko Gidaliburu Teknikoa

- EPER, Poluzioa Prebenitzeko eta Kontrolatzeko uztailaren 1eko 16/2002 Legea
- EPER inbentarioa. 2000ko uztailaren 17ko EBren Erabakia

**ARGITARATZAILEA:**

IHOBE – Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

**TXOSTENAREN EGILEA:**

Labein Fundazioa, IHOBE, S.A.rentzat

2005eko ekaina

## AURKEZPENA

---

Irailaren 24ko Kontseiluak ezarritako 96/61/EE Zuzentarauak, Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuei buruzkoak –**IPPC** Legea deitzen zaio–, ingurumen-legeriaren arloan ikuspegi berritzaile bat proposatu du. Izan ere, zenbait kontzeptu berri hartzen ditu kontuan, besteak beste: ikuspegi osatu eta integratzailea, ingurumena multzo gisa hartzen duena; erabil daitezkeen teknika onenetan oinarrituta aldizka-aldizka berrikus daitezkeen emisio-mugak ezartzea; informazioa trukitzea eta informazioa gardena izatea; baimen integralak; etab.

Halaber, Zuzentaru horren 15. artikulua Europako emisioen eta emisiogileen inbentarioa (EPER) egitea barne hartzen du. EPER inbentarioa 2000/479/EE Erabakiaren bidez ezarri da. Horren bidez, EBko estatu kideek IPPC Zuzentaruari (I. eranskina) aipatzen diren industria-iturrietatik sortzen diren 50 substantzia poluitzaileen datuak bildu eta Europako Batzordera bidali behar dituzte.

Lan horietan, urtean uretara eta atmosferara isurtzen diren eta muga-balioak gainditzen dituzten poluitzaileen kantitatea adierazi behar da (kg/urte). Bai poluitzaileak, bai muga-balioak erabakiaren II. eranskinean zehaztu dira, eta zenbatetsi, neurtu edo kalkula daitezke.

Esparru horretan, Gidaliburu hau, Europako Batasuneko ingurumen-politikarekin bat datorren politika garatzeko gure herrian ezartzen ari garen Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren (2002-2020) tresnetako bat da. Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila ari da koordinatzen, otsailaren 27ko 3/1988 Lege Orokorrak –Euskal Autonomia Erkidegoan Ingurumena Babesteari buruzkoa– ezartzen duenaren arabera. Gida hau egiteko, kontuan hartu dira Euskal Autonomia Erkidegoan dauden prozesuak. Eremu geografiko horretatik kanpo erabiliz gero, akatsak egin litezke.

## ESKERRAK

---

Eskerrak eman nahi dizkiegu gidaliburu honetan ekarpenak egin dituen ACLIMARI eta horren enpresa bazkideei, sektoreari buruz dakitena eta sektorean duten eskarmentua guri eskaintzeagatik.

- CESPACONTEN
- INDUMETAL RECYCLING, S.A.
- OÑEDER, S.A.
- SADER, S.A.
- TRADEBE, S.A.
- TRADERISA – LIZARREKA, S.L.
- EKONOR

Enpresa horien guztien laguntzarik gabe, ezin izango genuen gidaliburua egin.

# AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA.....</b>	<b>1</b>
<b>ESKERRAK .....</b>	<b>2</b>
<b>0.- GIDALIBURUAREN XEDEA.....</b>	<b>5</b>
<b>1.- IPPC ZUZENTARAUA/LEGEA ETA EPER ERABAKIA HONDAKINEN KUDEAKETAREN SEKTOREAN .....</b>	<b>7</b>
1.1.- IPPC ZUZENTARAUA/LEGEA SEKTOREAN.....	7
1.2.- EPER ERABAKIA SEKTOREAN.....	11
1.3.- NEURKETA/KALKULU/ZENBATESPENETAN OINARRITUTAKO EMISIOEN BALIOESPENA .....	13
<b>2.- PROZESUEN DESKRIBAPENA .....</b>	<b>17</b>
2.1.- PROZESU OROKORRA. HONDAKIN ARRISKUTSUEN BALORIZAZIOA.....	17
2.2.- PROZESU OROKORRA. HIRI-HONDAKIN SOLIDOEN HONDAKINDEGIAK...	21
<b>3.- EMISIO ATMOSFERIKOAK .....</b>	<b>23</b>
3.1.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. HONDAKIN ARRISKUTSUEN BALORIZAZIOA ...	23
3.2.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. HIRI-HONDAKIN SOLIDOEN HONDAKINDEGIAK .	25
<b>4.- NEURKETA/KALKULU/ZENBATESPENETAN OINARRITUTAKO EMISIOEN BALIOESPENA .....</b>	<b>27</b>
4.1.- EMISIO-RATIOAK/-FAKTOREAK. PROZESU BEREZIAK DITUZTEN ENPRESAK .....	28
4.2.- EMISIO-RATIOAK/-FAKTOREAK. OLIOAK .....	29
4.3.- EMISIO-RATIOAK/-FAKTOREAK. KONTROL-SISTEMARIK GABEKO HHS-EN HONDAKINDEGIAK .....	30
4.4.- EMISIO-RATIOAK/-FAKTOREAK. ERREKUNTZA BIDEZKO KONTROL-SISTEMAK DITUZTEN HHS-EN HONDAKINDEGIAK .....	33
4.5.- EMISIO-RATIOAK/-FAKTOREAK. INSTALAZIO OSAGARRIAK.....	35
<b>5.- EMISIOEN KALKULUA. ADIBIDE PRAKTIKOA.....</b>	<b>39</b>
5.1.- ADIBIDEA. KONTROLIK GABEKO HHS-EN HONDAKINDEGIA .....	39
<b>6.- BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>41</b>

<b>ANEXOS</b> .....	<b>43</b>
<b>I. APLIKATU BEHARREKO LEGEAK (INDARREAN DAUDENAK ETA IZANGO DIRENAK)</b> .....	<b>47</b>
<b>II. ATMOSFERA-POLUITZAILEAK NEURTZEKO METODOAK</b> .....	<b>51</b>
<b>III. NEURTZEKO AZPIEGITUREN ZEHAZTAPENAK</b> .....	<b>73</b>
<b>IV. ESTEKA INTERESGARRIAK</b> .....	<b>79</b>
<b>V. SEKTOREETAKO GIDALIBURUEN ZERRENDA.</b> .....	<b>83</b>

## 0.- GIDALIBURUAREN XEDEA

**EPER Airea Gidaliburu** honen xedea Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailarentzat eta EAeko sektorearentzat tresna praktikoa izatea da. Honekin, “Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuei buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen” (IPPC Legea) mendean dauden “Hondakinen kudeaketa” sektoreko enpresek eta erakundeek parametro poluitzaileak eta horien ezaugarriak identifikatzeko, eta neurtzeko, zenbatesteko eta kalkulatzeko metodoak ezagutzeko aukera izango dute.

Gidaliburu honekin, enpresek EAeko Ingurumen Organoari ekarpenak egin ahal izango dizkiote, aurrez baliozkotutako metodoak erabiliz, bai neurketa-datuetatik, bai gidaliburu honetan bildutako emisio-faktoreetatik abiatuz, edo zenbatespen-metodoak erabiliz, bestelako daturik ez dagoen kasuetan.

Gidaliburu honek emisioak neurtzeko ekipoei, instalazioei (laginak hartzeko instalazio-tximiniak) eta neurtzeko eta analizatzeko metodologiari buruzko informazio praktikoa osagarria du.





## 1.- IPPC ZUZENTARAUA/LEGEA eta EPER ERABAKIA HONDAKINEN KUDEAKETAREN SEKTOREAN

### 1.1.- IPPC ZUZENTARAUA/LEGEA SEKTOREAN

Poluzioaren kontrol integratua ingurumeneko baimen integratuan oinarritzen da; hori, hain zuzen ere, esku-hartze administratibo berria da eta orain arte bete beharreko ingurumen-baimenen multzo zabala ordeztu eta biltzen du. Horrek balio erantsia ematen dio, banakoen mesedetan, administrazioko mekanismoak izugarri sinpletzen baititu.

Lege hori indarrean sartzean, hainbat ingurumen-baimen indargabetu dira, hala nola hondakinen ekoizpenari eta kudeaketari dagozkionak –errausketarenak barne–, komunitate barneko arroetako ur kontinentaletako isurketei dagozkienak, itsasoko nahiz lehorreko eremu publikoetara –lehorretik itsasora– egiten diren isurketei dagozkienak eta poluzio atmosferikoari dagozkionak. Halaber, gai arriskutsuak isurtzeari dagokion salbuespen-erregimena indargabetzen da.

“Hondakin arriskutsuen kudeaketa” sektoreak hainbat azpisektore biltzen ditu. Horiek epigrafe hauekin identifikatzen dira IPPC legearen arabera:

IPPC Legearen eta EPER Erabakiaren arabeko jardueren eta instalazioen kategoria	NOSE-P kodea	NOSE-P prozesua
5.1/5.2 Hondakin arriskutsuak (>10 t/egun) edo udal-hondakinak (>3 t/egun) balorizatzeko edo ezabatzeak instalazioak	109.03	Hondakin arriskutsuen edo udal-hondakinen errausketa (hondakinen errausketa eta pirolisia)
	109.06	Hondakindegia. (Hondakin solidoak lur gainean edo lurrazpian metatzea)
	109.07	Hondakinen tratamendu fisiko-kimikoa eta biologikoa (hondakinak kudeatzeko beste aukera batzuk)
	105.14	Hondakin-materialak birsortzea/balorizatzea (birziklapen-ndustriak)
5.3/5.4 Hondakin ez arriskutsuak (> 50 t/egun) eta hondakindegia (> 10 t/egun) ezabatzeak instalazioak	109.06	Hondakindegia (hondakin solidoak lur gainean edo lurrazpian metatzea)
	109.07	Hondakinen tratamendu fisiko-kimikoa eta biologikoa (hondakinak kudeatzeko beste aukera batzuk)

Hona hemen zenbait definizio:

**Instalazioa:** IPPC Zuzentarauaren I. eranskinean azaltzen diren jarduerak –bat edo gehiago– eta establezimenduko jarduerekin erlazio tekniko zuzena duten jarduerak –emisioetan eta poluzioan eragin dezaketenak– gauzatzen diren unitate tekniko eta egonkorra.

**I. eranskineko jarduera:** IPPC Zuzentarauaren I. eranskinean azaltzen den jarduera, EPER gidaliburuaren A3 eranskinean zehazten diren kategorien arabera.

**Gunea:** titularrak I. eranskinean azaltzen diren jarduerak –bat edo gehiago– gauzatzen dituen instalazio bat edo gehiago biltzen dituen establezimendu industrialia.

2002ko uztailaren 1eko IPPC Zuzentarauaren arabera (IPPC Zuzentaruua estatu espainiarrera ekarrita):

- \* Gaur egungo instalazioek **2007ko urriaren 30a arteko epea dute egokitzeko;** hortik aurrera, dagokien ingurumen-baimen integratua izan behar dute.
  
- \* **Ingurumen-baimen integratuak gehienez 8 urteko epea** izango du, eta, interesdunak hala eskatuta, hurrengo eperako berritu ahal izango da. Instalazioaren titularrak epemuga amaitu baino **10 hilabete lehenago, gutxienez, eskatu behar du baimena berritzea.**

**INSTALAZIOETAKO TITULARREN BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN-BAIMEN INTEGRATUAREN EDUKIAK**

Lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren jarduera industrialak gauzatzen diren instalazioetako titularrek honako hauek bete behar dituzte:

- Ingurumen-baimen integratua eskuratu eta horretan ezartzen diren kondizioak bete behar dituzte.
- Aplikatu beharreko legeek eta ingurumen-baimen integratuak berak informazioa kontrolatzeko eta hornitzeko ezartzen dituzten betebeharrak bete behar dituzte. Instalazioetako titularrek urtean behin, gutxienez, jakinarazi behar dizkiote EAeri instalazioari dagozkion emisio-datuak.
- Hauek jakinarazi behar dizkiote organo eskudunari, ingurumen-baimen integratua eman ahal izateko:
  - instalazioan egin nahi den edozein aldaketa –funtsezkoa izan ala ez izan–;
  - titulartasuna aldatzea;
  - ingurumenean eragina izan dezakeen edozein gertaera edo istripu.
- Zaintzen, ikuskatzen eta kontrolatzen dihardutenei laguntzea eta haiekin batera jardutea.
- Lege horretan ezartzen diren beste betebeharrak eta aplikatu behar zaizkion gainerako xedapenak betetzea.

”Informazioari, komunikazioari eta informazioaren eskuragarritasunari” dagokienez:

**Instalazioetako titularrek urtean behin jakinarazi behar dituzte, gutxienez, dagokien autonomia-erkidegoan, instalazioaren emisioei buruzko datuak.**

Instalazioetako titularrek ingurumen-baimen integratua eskuratzeko erakunde eskudunari eman behar dioten informazioak, gutxienez, hauek izan behar ditu:

- Lurzorua eta lurpeko urak babestuta daudela bermatzen duten aginduak, hala dagokionean.

- Instalazioak sortutako hondakinak kudeatzeko erabiliko diren prozedura eta metodoak.
- Urruneko edo mugaz gaindiko poluzioa minimizatuko dela bermatuko duten aginduak, hala dagokionean.
- Emisio- eta hondakin-mota guztiak tratatzeko eta kontrolatzeko erabiliko diren sistemak eta prozedurak –neurtzeko metodologia zehaztuta–, maiztasuna eta emisioak ebaluatzeko prozedurak.
- Ohikoak ez diren egoeretan ustiatzeko kondizioei dagozkien neurriak, hala nola martxan jartzeari, ihesei, funtzionamendu-akatsari, denboraldi baterako gelditzeari edo behin betiko ixteari dagozkienak.

Ingurumen-baimen integratuak, halaber, aplikatu beharreko muga-balioen denborazko salbuespenak izan ditzake, baldin eta instalazioaren titularrak ondoren azaltzen diren neurrietako bat aurkezten badu. Neurri horiek administrazio eskudunak onartu behar ditu eta ingurumen-baimen integratuan aipatu behar dira. Hauek azaldu behar dira:

- 6 hileko epean, gehienez, emisioen muga-balioak beteko direla bermatzen duen birgaitze-plana.
- Poluzioa gutxiaraziko duen proiektua.

## 1.2.- EPER ERABAKIA SEKTOREAN

Batzordearen 2000/479/EE Erabakia EPER Erabaki gisa ezagutzen da. Erabaki horretatik, batez ere, EBko estatu kideentzako baldintzak sortu arren, zuzenean eragiten du hainbat industria-sektoretan. Estatu kideek inbentarioa egin behar dute beren lurraldean, eta dagozkien datuak jakinarazi behar dizkiote Batzordeari. Industriak emandako informazioan oinarrituta, batez ere, bilduko dira datuak. EA Eren kasuan, ingurumenaren eskuduntza gure autonomia-erkidegoko organo eskudunari transferitu zaio estatu espainiarretik.

EPER Erabakiaren arabeko lege-baldintzak taula honetan biltzen dira:

<b>EPER ERABAKIAREN ondorio diren lege-baldintzak</b>	
<b>Nor behartzen du ERABAKIAK?</b>	
<input type="checkbox"/>	<b>EPER Erabakiak</b> estatu kideak behartzen ditu, horiek baitute instalazioetako datuak biltzeko ardura.
<b>Zertara behartzen du ERABAKIAK?</b>	
<input type="checkbox"/>	Erabakiaren arabera, IPPC Zuzentarauaren I. eranskinean azaltzen diren jarduera industrialak – bat edo gehiago– gauzatzen diren banakako gune guztiek atmosferara eta uretara egiten dituzten isurpenen berri eman behar diote Batzordeari.
<b>Zer emisio jakinarazi behar da?</b>	
<input type="checkbox"/>	Erabakiaren I. eranskinean biltzen diren 50 poluitzaileen zerrendatik atmosferara eta uretara isurtzen direnak jakinarazi behar dira.
<b>Nola jakinarazi behar da?</b>	
<input type="checkbox"/>	EPER Erabakiaren A2 eranskinean aipatzen den jakinarazpen-inprimakian azaltzen den eskemari segitu behar zaio.
<b>Zer maiztasunekin jakinarazi behar da?</b>	
<input type="checkbox"/>	Hasieran 3 urtean behin. Lehen txostena 2003ko ekainean aurkeztu behar da, eta 2001eko emisioei buruzko datuak izan behar ditu; horiek ez badaude, 2003. edo 2001. urteetakoak izango ditu. 2008tik aurrera, urtean behin jakinaraziko zaio Batzordeari, abenduan.
<b>Nori eragingo dio EPER Erabakiak?</b>	
<input type="checkbox"/>	Erabakiak EBko estatu kideak behartzen baditu ere (horiek baitute EPER estatu mailan ezartzeko ardura), eragin handiagoa izango du IPPC jarduerak gauzatzen dituzten industrietan eta erakundeetan eta Erabakiaren A1 eranskinean azaltzen den substantzia poluitzaileen zerrendakoak isurtzen dituzten industrietan.

Informazio gehiago lor dezakezu helbide honetan:

<http://www.eper-euskadi.net>

Atmosferako emisioen muga-balioak	AIREA	EPER poluitzaileak/substantziak	URA	Uretara egindako emisioen muga-balioak
kg/urte		<b>Ingurumen-gaiak</b>		kg/urte
100.000	X	CH <sub>4</sub>		
500.000	X	CO		
100.000.000	X	CO <sub>2</sub>		
100	X			
10.000	X	N <sub>2</sub> O		
10.000	X	NH <sub>3</sub>		
100.000	X	NMVOC		
100.000	X	NO <sub>x</sub> (NO <sub>2</sub> gisa)		
100	X	PFC2		
50	X	SF <sub>6</sub>		
150.000	X	SO <sub>x</sub> (SO <sub>2</sub> gisa)		
		Nitrogenoa guztira (N gisa)	X	50.000
		Fosforoa guztira (P gisa)	X	5.000
kg/urte		<b>Metalak eta konposatuak</b>		kg/urte
20	X	As konposatuak (Arseniko elemental gisa)	X	5
10	X	Cd eta konposatuak (Kadmio elemental gisa)	X	5
100	X	Cr eta konposatuak (Kromo elemental gisa)	X	50
100	X	Cu eta konposatuak (Kobre elemental gisa)	X	50
10	X	Hg eta konposatuak (Mercurio elemental gisa)	X	1
50	X	Ni eta konposatuak (Nikel elemental gisa)	X	20
200	X	Pb eta konposatuak (Berun elemental gisa)	X	20
200	X	Zn eta konposatuak (Kobre elemental gisa)	X	100
kg/urte		<b>Substantzia organokloratuak</b>		kg/urte
1.000	X	kloroetanoa (DCE)	X	10
1.000	X	Diklorometanoa (DCM)	X	10
		Kloroalkanoak (C10-13)	X	1
10	X	Hexaklorobentzenoa (HCB)	X	1
		Hexaklorobutadienoa (HCBd)	X	1
10	X	Hexakloroziklohexanoa (HCH)	X	1
		Konposatu organohalogenatuak (AOX gisa)	X	1.000
0,001	X	PCDD+PCDF - dioxinak eta furanoak (Teq gisa) <sup>1</sup>		
10	X	Pentaklorofenola (PCP)		
2.000	X	Tetrakloroetilenoa (PER)		
100	X	Tetraklorometanoa (TCM)		
10	X	Triklorobentzenoa (TCB)		
100	X	1,1,1-trikloroetanoa (TCE)		
2.000	X	Trikloroetilenoa (TRI)		
500	X	Trikloroemetanoa		
kg/urte		<b>Beste zenbait konposatu organiko</b>		kg/urte
1.000	X	Bentzenoa		
		Bentzenoa, Toluenoa, etilbentzenoa, xilenoak (BTEX gisa)	X	200
		Difenileter bromatua	X	1
		Eztainua duten konposatu organikoak (Sn total gisa)	X	50
50	X	Hidrokarburo aromatiko poliziklikoak <sup>2</sup>	X	5
		Fenolak (C total gisa)	X	20
		Guztizko Karbono organikoa – TOC (C total edo OEK/3 gisa)	X	50.000
kg/urte		<b>Beste zenbait konposatu</b>		kg/urte
		Kloruroak (Cl total gisa)	X	2.000.000
10.000	X	Kloroa eta konposatu ez-organikoak (HCl total gisa)		
		Zianuroak (CN total gisa)	X	50
		Fluoruroak (F total gisa)	X	2.000
5.000	X	Fluorra eta konposatu ez-organikoak (HF gisa)		
200	X			
50.000	X			
37		<b>Poluitzaile-kantitatea</b>		26

<sup>1</sup> Hauen batura: HFC23, HFC32, HFC41, HFC4310mee, HFC125, HFC134, HFC134a, HFC152a, HFC143, HFC143a, HFC227ea, HFC236fa, HFC245ca.

<sup>2</sup> Hauen batura: CF<sub>4</sub>, C<sub>2</sub>F<sub>6</sub>, C<sub>3</sub>F<sub>8</sub>, C<sub>4</sub>F<sub>10</sub>, C-C<sub>4</sub>F<sub>8</sub>, C<sub>5</sub>F<sub>12</sub>,

**Oharra:** muga-balio horietatik gorako kasuetan, estatu kideek Europara bidali behar dute informazioa.

### 1.3.- NEURKETA/KALKULU/ZENBATESPENETAN EMISIOEN BALIOESPENA

### OINARRITUTAKO

Emisio-datu guztiak letra hauekin identifikatu behar dira: **N** (neurtua), **K** (kalkulatua) edo **Z** (zenbatetsia); horiek, hain zuzen, emisioak zehazteko zein metodo erabili den adierazten dute. Eta kg/urte-tan adieraziko dira, hiru digitu esanguratsu erabiliz.

Jakinarazitako datua gunean dauden iturrietatik egindako emisioen batura denean, iturri horietan metodo desberdinak erabil daitezkeenez, kode bakarra ipiniko zaio datuari ('N', 'K' edo 'Z'); kode hori jakinarazitako emisioaren guztizko datuan ekarpen handiena egin duenari dagokion metodoarena izango da.

Ondoren, **NEURTUA**, **KALKULATUA** eta **ZENBATETSIA** terminoak definitzen dira.

#### NEURTUA

Metodo normalizatuak edo onartuak erabiliz egindako neurketetan oinarritutako emisio-datua da. Hala ere, neurketa horietako emaitzak urteko emisio-datu bilakatzeko, kalkuluak egin behar dira nahitaez. Datu neurtuak hauek betetzen ditu:

- Gunearen berariazko prozesuak zuzenean kontrolatuta lortzen diren emaitzetan eta emisio-bide jakin baterako poluitzaileen kontzentrazioaren neurketa errealetan oinarrituta ondorioztatzen dira.
- Neurketa-metodo normalizatu edo onartuen emaitza da.
- Epe labur bateko neurketa puntualen emaitzetan oinarrituta kalkulatzen da.

Ondoren, neurketetan oinarrituta urteko emisioak kalkulatzeko (kg/urte) aplikatu behar den formula orokorra azaltzen da:

Kontzentrazioa mg/Nm<sup>3</sup>-tan emana badago:

$$Emisioak \text{ (kg/urte)} = (Kontzentrazioa \text{ (mg/Nm}^3) \times Emaria \text{ (Nm}^3/h) \times Instalazioaren \text{ funtzionamendu-orduak urtean})/10^6$$

Kontzentrazioa ppm-tan (bolumeneko parte-kopurua milioiko) emana badago:

Formula hau erabiltzen da:

$$Emisioak \text{ (kg/urte)} = (\text{kontzentrazioa [ppm]} \times \frac{\text{poluitzailearen pisu molekularra } \left[ \frac{\text{g}}{\text{mol}} \right]}{22,4 \left[ \frac{\text{l}}{\text{mol}} \right]} \times Emaria \text{ [Nm}^3/h] \times Instalazioaren funtzionamendu-orduak urtean})/10^6$$

Mol baten bolumena, kondizio normaletan, 22,4 litrokoa da (273,15 K eta 101,3 kPa).

Edo erlazio hauek erabiliko dira:

Nondik	Nora	Honekin biderkatu:
ppm NO <sub>x</sub>	mg/Nm <sup>3</sup>	2,05
ppm SO <sub>x</sub>	mg/Nm <sup>3</sup>	2,86
ppm CO	mg/Nm <sup>3</sup>	1,25
ppm N <sub>2</sub> O	mg/Nm <sup>3</sup>	1,96
ppm CH <sub>4</sub>	mg/Nm <sup>3</sup>	0,71

## KALKULATUA

Estatu mailan edo nazioartean onartutako zenbatespen-metodoak erabiliz egindako kalkuluetan eta industria-sektoreko emisio-faktore esanguratsuetan oinarritutako emisio-datua da. Hauek dira datu kalkulatuak:

- Jarduera-datuak (fuel-olioaren kontsumoa, ekoizpen-tasak etab.) eta emisio-faktoreak erabiliz egindako kalkuluak.
- Temperatura, erradiazio globala eta horrelako aldagaiak erabiliz egindako kalkulu konplexuagoak.
- Masa-balantzeetan oinarritutako kalkuluak.
- Argitaratutako erreferentzietan deskribatutako emisioak kalkulatzeko metodoak.



Emisio-faktoreetan oinarritutako kalkuluaren adibidea da taula hau:

ERAGIKETA	EMISIO-FAKTOREA
<b>Edozein prozesu</b>	kg poluitzaile/tona produktu
	kg poluitzaile/sartutako tona lehengai
<b>Errekuntza industrialia</b>	kg poluitzaile/kWh GN
	kg poluitzaile/Nm <sup>3</sup> GN
	kg poluitzaile/therm GN
	kg poluitzaile/tona erregai (fuel-olioa, propanoa, gasolioa, ikatza, kokea...)

### ZENBATETSIA

Zenbatespen ez-normalizatueta oinarritutako emisio-datua da; hipotesi edo iritzi baimenduetatik ondorioztatzen da. Hauek dira datu zenbatetsiak:

- Argitaratutako erreferentzietan oinarritzen ez diren iritzi baimenduak.
- Suposizioak, emisioak zenbateteko metodologia onarturik edo jardunbide egokien gidarik ez badago.



## 2.- PROZESUEN DESKRIBAPENA

IPPC Legearen EAEko aplikazio-eremuko prozesuak kategoria hauen arabera sailka daitezke:

- Hondakin arriskutsuen balioztatzea
- Hondakindegietan isurtzea

### 2.1.- PROZESU OROKORRA. HONDAKIN ARRISKUTSUEN BALORIZAZIOA

Hondakin arriskutsuak balorizatzeko oso jarduera desberdinak dituzte enpresek. Prozesu horietako batzuk oso espezifikoak dira –enpresak berak erabiltzen ditu–, eta ez dugu horiei buruzko informaziorik.

EAEko hainbat instalaziotan hondakin arriskutsu hauek tratatzen dituzte, besteak beste:

- Ez-burdinazko hondakin metalikoak: aluminioa, zinka, beruna, kobrea
- Olio erabiliak, taladrinak, hidrokarburoak, disolbatzaileak
- Hondakin fotokimikoak, erradiologikoak
- Pilak, hodi fluoreszenteak, merkuriozko lanparak
- Altzairutegietako hautsak
- Ekipo informatikoetako, telefonikoetako eta telekomunikazioetako hondakinak
- Hidrokarburo-lohiak

Hurrengo ataletan, prozesu horietako batzuk deskribatzen dira.

#### 2.1.1.- OLIO ERABILIEN TRATAMENDUA

Hondar-olioak, besteak beste: motorretako lubrifikatzaileak, fluido hidraulikoak, isolamendu-fluidoak, gantzak...

Hondakin-olio horien iturri nagusiak automobilgintza, hegazkingintza, itsasontzigintza, trengintza eta beste zenbait industria-prozesu.

Lehengai horiek, sarritan, glikolak, disolbatzaile kloratuak, gasolina, ikatza, partikula solidoak eta metalak izan ohi dituzte. Metalak gehienetan konposatu organometaliko gisa, oxido gisa eta sulfuro metaliko gisa egoten dira.

Ondorengo taulan, hondar-olioetan izaten diren poluitzaileen ohiko kontzentrazioak azaltzen dira:

1. taula: Hondar-olioetako poluitzaileak

Poluitzaileen zerrenda orokorra	µg/g-aren batez besteko kontzentrazioa	Kontzentrazio-tarteak
Sufrea	5.000	
Errautsak	6.500	1.000 - 12.000
Kloroa	2.200	1.000 - 6.700
Nitrogenoa	1.000	100 - 2.800
Sufrea	5.000	2.700 - 7.500
Aztarna-elementuak		
Aluminioa	45	2 - 640
Artsenikoa	12	1 - 100
Barioa	66	9 - 160
Kadmioa	1	0,6 - 2,8
Kromoa	6	1 - 37
Burdina	240	58 - 1.300
Beruna	1.100	170 - 2.100
Magnesioa	260	5 - 590
Banadioa	3	0,1 - 13
Zinka	800	90 - 1.550


Hondakina birziklatzeko hainbat prozesu daude. Prozesu horien helburua da oliotik ura, jalkinak, metal astunak eta abar kentzea.

Prozesuak hauek dira, besteak beste:

- Iragazketa, mikroiragazketa: ura eta solidoak kentzeko oinarrizko metodoa.
- Deshidratazio-prozesua.
- Tratamendu kimikoa/desmineralizazioa.
- Cracking termikoa.
- Berotzea
- Oinarrizko olioak sortzeko distilazioa.
- Desemulsionatzea
- Disolbatzaileak eruztea eta hidrotreatamendua
  - Zentrifugatzea

Ondoren, olio erabiliak distilazio bidez prozesatzeko metodo baten diagrama azaltzen da:

1. irudia: Olioak distilatzeko prozesua



Olio erabilien errausketari dagokionez, olio erabilia hainbat errekontza-sisteman erre daiteke: galdaretan, berogailuetan, asfaltoa ekoizteko instalazioetan, kare- eta zementu-labeetan, beste lehorgailu-mota eta kaltzintzaileetan eta altzairua ekoizteko labe garaietan.

2.1.2.- EZ-BURDINAZKO METALURGIAKO ENPRESAK

EAEn hondakinak kudeatzeko enpresak daude; horien jarduera nagusia ez-burdinazko material metalikoak berreskuratzea da.

Aluminiozko, kobrezko, zinkezko... txatarra edo hondakin metalikoak dira lehengai nagusia, bigarren galdaketako material metalikoak ekoizteko, alanbre trefilatua, lingoteak eta abar fabrikatzeko.

Waeltz oxidoa ekoizteko Waeltz prozesua ere deskribatzen da; horren lehengai nagusia altzairutegietako hautsa da.

Enpresa horietako batzuen azterketa “**Ez-burdinazko metalurgiaren gidaliburu praktikoa**” biltzen denez, ez da berriz dokumentu honetan horrelako prozesurik deskribatzen.

### 2.1.3.- PILEN BIRZIKLAPENA

Tratamendu termikoa da merkurioa duten hondakinak –pilak, esaterako– birziklatzeko metodarik erabiliena.

Normalean, txatarra tamainaz txikitu eta labean berotzen da 540 °C inguruko tenperaturan. Merkurio-lurrunak kondentsatu eta uretan biltzen dira.

Partikula eta konposatu organikoak izan ditzaketen kondentsadoreko lurrunak merkurioa erauzteko lerroko lurrunekin konbinatzen dira. Horrela sortutako korrontea ur-scrubber batetik pasatzen da partikula eta gas azidoak (adibidez:HCl, SO<sub>2</sub>...) kentzeko. Scrubber-aren irteeran, lurrunak ikatz aktibozko iragazki batetik pasarazten dira, atmosferara emititu baino lehen, osagai organikoak ezabatzeko.

Bildutako merkurioa garbitu egiten da distilazio bidez; bildu eta betetzeko eremura eramaten da.

### 2.1.4.- BESTE ZENBAIT PROZESU BEREZI

EAEko beste enpresa batzuek hondakinak balorizatzeko oso prozesu espezifikoak erabiltzen dituzte. Ondoren, labur-labur azaltzen dira hainbat prozesu:

- Desugertzeko bainu azidoen, fosfatazio-lohien, metal hidroxidozko lohien tratamendu fisiko-kimikoen instalazioa. Etapa hauek barne hartzen ditu: neutralizazioa, iragazketa, geldo bihurtzea...
- Txatar elektrikoa, informatikoa, telefonikoa tratatzeko instalazioa. Material metalikoak –burdina, kobrea, zinka, beruna, metal bitxiak, etab.– berreskuratzeko bereizketa-eragiketa, ehotzea...
  - Errebelatua egiteko, finkatzeko disoluzioen tratamendu-instalazioa. Zilarra berreskuratzeko elektrolisi-prozesuak barne hartzen ditu.
- Substantzia organikoak dituzten hondakinak tratatzeko instalazioa (petrolio-enpresetako, petrokimikako, industria kimikoetako hondakinak eta abar). Tratamendua desortzio termikoa eta beste metodo hauek barne hartzen ditu: deshidratatzea, zentrifugatzea, egonkortzea eta geldotzea.

## 2.2.- PROZESU OROKORRA. HIRI-HONDAKIN SOLIDOEN HONDAKINDEGIAK

Hiri-hondakin solidoen hondakindegiek hondakin hauek izan ditzakete:

- Udal-hondakin solidoak
- Etxeko hondakin arriskutsuak
- Udal-zaborren, lohien eta abarren errekontza-errautsak
- Hondakin infekziosoak
- Gurpil erabiliak
- Arriskurik gabeko industria hondakinak
- Eraikuntzako eta eraisketako hondakinak
  - Nekazaritzako hondakinak
- Eta abar.

Hondakindegia bat hiru modutan diseinatu eta antola daiteke: gainazal-metodoa, zanga-metodoa eta malda-metodoa:

- Gainazal-metodoa: hondakinak geruzatan ipini eta trinkotu egiten dira hiruzpalau metroko sakonera lortu arte. Ondoren, lurrez estaltzen da.
  - Zanga-metodoa: egunero zangak egiten dira eguneko hondakinak jasotzeko eta hondeaketan ateratako zoruaz betetzen da.
- Malda-metodoa: hondakina maldan zabaltzen da eta gainazal-metodoan bezala jarduten da.

Hondakindegia modernoek zoruz eraikitako geruzak (buztin trinkotuz, adibidez) edo geruza sintetikoak (dentsitate handiko polietilenoa, adibidez) dituzte.

Hondakindegia batzuetan sortutako gasa biltzeko sistemak instalatzen dira. Sistema horiek aktiboak edo pasiboak izan daitezke.

Biltzeko sistema aktiboek gasa haizagailu edo konprimigailuetatik erauzteko presio-gradienteak eragiten dute.

Sistema pasiboak hondakindegia barnean presioa handitzen delako sortzen den presio-gradientearen oinarritzen dira.

**Hondakindegi-gasa kontrolatzeko aukerak:**

- Errekuntza-teknikak:
  - + Energia berreskuratuta: gas-turbinak, barne-errekuntzako gasak, galdarak.
  - + Energiarik berreskuratu gabe:ugarra (zuzia)
  
- Purifikatzeko teknikak, adsortzioa, xurgapena, mintzak



### 3.- EMISIO ATMOSFERIKOAK

Hurrengo ataletan 2. atalean deskribatutako prozesuen emisioak azaltzen dira. Halaber, 3.3. atalean instalazio osagarrietako gas-emisioak azaltzen dira; izan ere, hondakinak tratatzeko hainbat enpresek instalazio horiek izan ditzakete.

#### 3.1.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. HONDAKIN ARRISKUTSUEN BALORIZAZIOA

Ondorengo taulan hauek ikus daitezke: alde batetik, EPER ezartzeko gidaliburuan azaltzen diren poluitzaile atmosferikoen zerrenda dago, orientazio moduan; eta, bestetik, EPER Erabakiaren III. eranskinari dagokion 5.1 kategoriaren arabera jardueratan (“Hondakin arriskutsuak –olio erabilien kudeaketa barne– balorizatzeko edo hondakindegia ez diren lekuetan hondakin horiek ezabatzeko instalazioak, egunean 50 tona baino gehiago tratatzeko ahalmena dutenak”) emititu daitezkeen eta, dagokionean, emisio-faktorea duten poluitzaileen zerrenda azaltzen da

2. taula: EPER Aireko poluitzaileak.

Poluitzaileak	EPER ezartzeko gidaliburua	Olioien distilazioa	Olioien errausketa	Pilen birziklapena
PM10		•	♦	•
Fluorra eta konposatu ez-organikoak		•	•	
Kloroa eta konposatu ez-organikoak			♦	•
Hidrokarburo aromatiko poliziklikoak		•	♦	
Bentzenoa		•		
PCDD+PCDF (dioxinak + furanoak)			♦	
Hexaklorobentzenoa				
Zn eta konposatuak		•		
Pb eta konposatuak		•	♦	
Ni eta konposatuak		•	♦	
Hg eta konposatuak				•
Cu eta konposatuak		•		
Cr eta konposatuak		•	♦	
Cd eta konposatuak		•	♦	
As eta konposatuak		•	♦	
SO <sub>x</sub>			♦	•
NO <sub>x</sub>		•	♦	
NMVOC		•	•	
CO <sub>2</sub>			♦	
CO		•	♦	
CH <sub>4</sub>			•	

• Isur daitezkeen konposatu horiek ez dute emisio-faktorerik

♦ Isur daitezkeen konposatu horiek emisio-faktorea dute

Grisez, Europako Batzordearen EPER betetzeko gidaliburuko orientazio-azpizerrera

### 3.1.1.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. OLIO ERABILIAK

Olio erabilien tratamenduan errausketa eta distilazio bidez emititzen diren konposatuak 3.1. ataleko “EPER Aireko poluitzaileak” taulan biltzen dira.

### 3.1.2.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. PILEN BIRZIKLAPENA


Pilak birziklatzeko tratamenduan emititzen diren konposatuak 3.1. ataleko “EPER Aireko poluitzaileak” taulan biltzen dira.

Prozesu honetako emisiogune nagusiak hauek dira: labea, distilatzea, ikatz aktibozko iragazkiaren ondorengo lurrin-emisioak.

Labea deskargatzean gertatzen diren kondentsadoreko gas-efluenteen ondorioz emititzen da merkurio gehien.

Hurrengo diagraman, pilak birziklatzeko prozesuaren etapak eta horiei dagozkien emisiogune nagusiak azaltzen dira.

2. irudia: Pilen birziklapena



### 3.1.3.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. BESTE ZENBAIT PROZESU BEREZI

Prozesu horietan hainbat emisio egin daitezke: emisio azidoak, partikulak, lurrin metalikoak...

### 3.2.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. HIRI-HONDAKIN SOLIDOEN HONDAKINDEGIAK

Ondorengo taulan hauek ikus daitezke: alde batetik, EPER ezartzeko gidaliburuan azaltzen diren poluitzaile atmosferikoen zerrenda dago, orientazio moduan; eta, bestetik, EPER Erabakiaren III. eranskinari dagokion 5.4 kategoriaren arabera jardueratan (“Hondakina edozein dela ere, 10 tona baino gehiago hartzen duten edo 25.000 tona baino edukiera handiagoa duten hondakindegia, hondakin geldoen hondakindegia kontuan izan gabe”) emiti daitezkeen eta, dagokionean, emisio-faktorea duten poluitzaileen zerrenda azaltzen da

3. taula: EPER Aireko poluitzaileak. HHSen hondakindegia

5.4. sektorean isuritako poluitzaileak	EPER ezartzeko gidaliburua	Kontrolik gabeko hondakindegia	Hondakindegia kontrolatuak
SO <sub>x</sub>			♦
NO <sub>x</sub>			♦
CO <sub>2</sub>		♦	♦
CH <sub>4</sub>		♦	♦

- Emisio-faktorerik ez duten isuritako konposatuak
- ♦ Emisio-faktorea duten isuritako konposatuak

Hondakindegia-gasaren osagai nagusiak CH<sub>4</sub> eta CO<sub>2</sub> dira. Hondakindegia barnean dauden mikroorganismoek kondizio anaerobioetan sortzen dituzte.

LFG hondakindegia-gasa –ratioa eta konposizioa– sortzeko prozesuak lau fase ditu:

- Lehen fasea: aerobikoa, CO<sub>2</sub> sortzen da.
- Bigarren fasea: O<sub>2</sub>-aren deplezioa, ingurune anaerobikoan; CO<sub>2</sub> ugari eta hidrogeno pixka bat sortzen dira.
  - Hirugarren fasea: anaerobikoa; CH<sub>4</sub> sortzen hasten da eta CO<sub>2</sub> gutxitzen da. Nitrogeno ugari dago lehen fasean eta, ondoren, izugarri gutxitzen da.
  - Laugarren fasea: CH<sub>4</sub>, CO<sub>2</sub> eta N<sub>2</sub>-aren ekoizpena egonkortu egiten da.

Faseek hondakindegiairen ezaugarrien arabera iraupena izango dute (zaborraren konposizioa, zaborra estaltzen duten materialak, etab.).

Gasa kondizio egonkorretan sortzen hasten denean, gasa gutxi gorabehera honela osatuta dagoela onar daiteke: % 40 CO<sub>2</sub>, % 55 CH<sub>4</sub>, % 5 N<sub>2</sub> eta NMVOC aztarnak (<% 2).

NMVOCen emisioak zaborrean dauden konposatu organikoak lurruntzean sortzen dira. Hondakindegia barneko prozesu biologiko eta erreakzio kimikoetan sortzen dira. Emisio horiek gutxienekoak dira eta oso konposatu desberdinez osa daitezke, besteak beste, hondakindegiairen ezaugarrien eta zabor-motaren arabera.

Hondakindegiaiek errektuntza bidezko kontrol-teknologia badu, emisio kontrolatuek gainera konposatu hauek dituzte: karbono monoxidoa (CO), nitrogeno-oxidoak (NO<sub>x</sub>), sulfre(IV) oxidoa (SO<sub>2</sub>), PM partikulak eta beste zenbait errektuntza-produktu. PM partikulak, halaber, iturri mugikorrek (adibidez, zaborra garraiatzen duten kamioiak) eragindako ihes-emisio moduan emiti daitezke.

#### 4.- NEURKETA/KALKULU/ZENBATESPENETAN OINARRITUTAKO EMISIOEN BALIOESPENA

Emisioen ebaluazioaren lehentasuna da hondakinak kudeatzen dituzten enpresetan egin dituzten neurketak erabiltzea (Ziurtagiriak emateko Erakunde Baimendu batek egindakoak ahal bada), baldin eta prozesuan ohiko kondizioen adierazgarri badira. Neurketarik ez badago (edo adierazgarriak ez badira), emisio-faktoreetatik abiatuta ebaluatzen dira emisioak (kalkulua).

Emisio-faktoreak esaten zaie isuritako substantzia baten kantitatea adierazten duten ratioei, ekoiztako produktu bakoitzeko (adibidez, hondakindegian utzitako zabor tona bakoitzeko, etab). Sektore honetan erabiltzen diren faktoreak taula honetan zehazten dira:

ERAGIKETA	EMISIO-FAKTOREA
Olio-errekuntza	kg poluitzaile/m <sup>3</sup> olio erre

Iturri hauek kontsultatu dira eta horietatik lortu dira faktore gehienak:

- **EEA: EMEP/CORINAIR (Atmospheric Emission Inventory Guidebook).**
- **U.S. EPA (Emission Factor and Inventory Group).**
- **IPPC (Metal ferrosoak ekoizteko BREF dokumentua).**
- **IPCC (Intergovernmental Panel on Climate Change).**
- **KARLSRUHEko Unibertsitatea (Alemania).**
- **National Emission Inventory (NAEI-UK).**
- **National Pollutant Inventory (NPI-Australia).**

#### 4.1.- EMISIO-RATIOAK/-FAKTOREAK. PROZESU BEREZIAK DITUZTEN ENPRESAK

EAEEn hondakinak kudeatzeko eta birziklatzeko oso prozesu bereziak erabiltzen dituzten enpresak daude. **Jarduera horietako askotarako ez dago emisio-faktore egiaztaturik urtean egiten dituzten emisioak kalkulatzeko.**

**Horregatik, horietako askok aldizka emisio-guneen neurketak egiten dituztela kontuan izanik, emisio-kalkuluak neurketa-datu horietatik abiatuz egitea gomendatzen da.**

Ondoren, neurketetan oinarrituta urteko emisioak kalkulatzeko (kg/urte) aplikatu behar den formula orokorra azaltzen da:

Kontzentrazioa mg/Nm<sup>3</sup>-tan emana badago:

$$\text{Emisioak (kg/urte)} = (\text{Kontzentrazioa (mg/Nm}^3) \times \text{Emaria (Nm}^3/\text{h)} \times \text{Instalazioaren funtzionamendu-orduak urtean})/10^6$$

Kontzentrazioa ppm-tan (bolumeneko parte-kopurua milioiko) emana badago:

Formula hau erabiltzen da:

$$\text{Emisioak (kg/urte)} = (\text{kontzentrazioa [ppm]} \times \frac{\text{poluitzailearen pisu molekularra } \left[ \frac{\text{g}}{\text{mol}} \right]}{22,4 \left[ \frac{\text{l}}{\text{mol}} \right]} \times \text{Emaria} \left[ \frac{\text{Nm}^3}{\text{h}} \right] \times \text{Instalazioaren funtzionamendu-orduak urtean})/10^6$$

Mol baten bolumena kondizio normaletan 22,4 litrokoa da (273,15 K eta 101,3 kPa).

Edo erlazio hauek erabiliko dira:

Nondik	Nora	Honekin biderkatu:
ppm NO <sub>x</sub>	mg/Nm <sup>3</sup>	2,05
ppm SO <sub>x</sub>	mg/Nm <sup>3</sup>	2,86
ppm CO	mg/Nm <sup>3</sup>	1,25
ppm N <sub>2</sub> O	mg/Nm <sup>3</sup>	1,96
ppm CH <sub>4</sub>	mg/Nm <sup>3</sup>	0,71

Poluitzaileen emisioen neurketak, normalean, 3 laginetan egingo dira; beraz, poluitzaile bakoitzarentzat C<sub>1</sub>, C<sub>2</sub>, C<sub>3</sub> (mg/Nm<sup>3</sup>) neurketak eta oinarri lehorreko hiru emari Q<sub>1</sub>, Q<sub>2</sub>, Q<sub>3</sub> (Nm<sup>3</sup>/h) izango ditugu.

Urteko emisioak honela kalkulatu dira:

$$Emisioak (kg/urte) = (C_1 \cdot Q_1 + C_2 \cdot Q_2 + C_3 \cdot Q_3) \times Instalazioaren funtzionamendu-orduak urtean / 10^6$$

#### 4.2.- EMISIO-RATIOAK/-FAKTOREAK. OLIOAK

Galdara txikietan olioaren erretzeko emisio-faktoreak biltzen dira taula honetan.

4. taula: Emisio-faktoreak. Olio-errekuntza.

Poluitzaileak (kg/m <sup>3</sup> hondar-olio)									
PM-10	CO <sub>2</sub>	NO <sub>x</sub>	SO <sub>x</sub>	CO	HCl	Cd	Cr	As	Pb
6,12 A	2640	2,28	17,6 S	0,6	7,92 Cl	1,12 E-03	0,24 E-02	1,3 E-02	6,6 L

A = errautsen % hondar-olioan  
 L = berunaren % hondar-olioan  
 L = sufreaken % hondar-olioan  
 L = kloroaren % hondar-olioan

Emisio-faktore horiek aldatu egin daitezke erretako olioaren jatorriaren arabera; horregatik, neurketa osagarririk ez duten enpresetan baino ezin da erabili.

Olioaren errekuntzan dioxinak eta furanoak ere isur daitezke; eta horiek emisio-faktore hauek dituzte.

5. taula: Emisio-faktoreak. Olio-errekuntza. Dioxinak.

Erregai	PCDD/PCDF ( $\mu\text{g I-TEQ/t}$ olio errea)
Tratatu gabeko hondar-olioa	2
Tratatutako hondar-olioa*	6
Batez besteko balioa	4

\*Tratatutako hondar-olioa solidoei –ez kloroa duten konposatuei– kendutakoa da.

### 4.3.- EMISIO-RATIOAK/-FAKTOREAK. KONTROL-SISTEMARIK GABEKO HHS-EN HONDAKINDEGIAK

#### 4.3.1.- Metanoa ( $\text{CH}_4$ )

Kontrolik gabeko emisioak –hots, gasa biltzeko eta kontrolatzeko sistemarik ez duten kasuetan– kalkulatzeko ekuazio teorikoa hau da:

$$Q_{\text{CH}_4} = L_o R (e^{-kc} - e^{-kt})$$

- $Q_{\text{CH}_4}$  = metano-sorreraren ratioa t denboran ( $\text{m}^3/\text{urte}$ )
- $L_o$  = metanoa sortzeko ahalmena ( $\text{m}^3 \text{CH}_4/\text{t}$  zaborra)
  - R = urteko zaborraren batez bestekoa (t zabor/urte)
  - k = metanoa sortzeko ratioa (1/urte)
  - c = hondakindegia itxi zenetik pasatu den denbora (urte)
- T = zaborra lehen aldiz metatu zenetik pasatu den denbora = zaborra lehen aldiz metatu zenetik igaro den urte-kopurua.

Formula horrek gasaren sorrera kalkulatu du, ez atmosferara egiten diren emisioak. Baina gauza bera direla onartzen da.

R ezagutzen bada, zenbatespen hauek egin daitezke:

$R$  = hondakindegia edukiera / funtzionamendu-urteak.

Edukiera = hondakindegia azalera \* hondakindegia sakonera \* zaborraren dentsitatea.

Zaborraren dentsitatea honela kalkula dezakegu:

- Zabor trinkotua:  $653 - 831 \text{ kg/m}^3$



- Zabor degradatua edo zanpatua: 1009 – 1127 kg/m<sup>3</sup>
- Ez badakigu trinkotu den ala ez: 688 kg/m<sup>3</sup>

Hondakindegia degradatzen ez den zaborra biltzen badu, ez da R zenbatestean kontuan hartuko. Zabor hau ez da degradatzen: zementua, adreiluak, harriak, plastikoa, beira, hodiak, igeltsua eta metalak.

Lo zaborraren osagai organikoen (batez ere zelulosa) eta hezetasunaren arabera da. 6,2-270 m<sup>3</sup> CH<sub>4</sub>/t zabor artekoa izan daiteke.

k hezetasunaren, pH-aren, tenperaturaren eta inguruneke beste zenbait faktoreren arabera da, bai eta hondakindegien eragiketa-kondizioen arabera ere.

Konstanteetarako balio hauek zenbatetsi dituzte hainbat informazio-iturrik:

Zenbatetsitako balioak	EPA	NPI	IPCC
Lo (m <sup>3</sup> /t zabor)	100	79	100 -200
k (1/urte)	0,04 (eguraldi euritsua)	0,058	0,004 – 0,4
	0,02 (eguraldi lehorra)		

Emisio-kalkuluak egiteko, k-rentzat EPAk emandako balioak hartuko dira, inguruko klima kontuan hartuta:

- 0,04 eguraldi euritsuko eremuetarako (urtean 635 l ur/m<sup>2</sup> baino gehiago)
- 0,02 eguraldi lehorreko eremuetarako (urtean 635 l ur/m<sup>2</sup> baino gutxiago)

Lo kalkulatzeko formula:

**LO = DOC \* DOCf \* 16/12 \* F \* MCF** (formula hau aplikatzean, Lo unitate hauetan kalkulatu dugu: t CH<sub>4</sub>/t zabor)

Zenbatetsitako balioak:

- MCF = kudeatutako hondakindegiko bateko gasean dagoen metano-kantitatea
  - + Kudeatutako hondakindegiko modernoetarako: MCF = 1
  - + Kudeatu gabeko sakonera gutxiago hondakindegietarako (5 metro baino sakonera gutxiagokoak): MCF = 0,4
  - + Kudeatu gabeko hondakindegiko sakonagoetarako: MCF = 0,8
- DOC = zaborrean degrada daitezkeen karbono organikoaren zatikia. Kalkulua: DOC = 0,4 (paperaren eta ehunen %\*) + 0,17 (organikoen %\*, hala nola

lorategiak, basoak) + 0,15 (janariaren %\*) + 0,3 (zuraren %\*) (\* portzentajeak bateko hainbestean ipini behar dira)

- DOCf = hondakindegia-gas bilakatzen den DOCaren zatikia.  $DOCf = 0,014 T + 0,28$ . T. Lehenespenez, eremu anaerobioko tenperatura = 35 °C; DOCf = 0,77
  - F = CH<sub>4</sub>-aren zatikia kudeatutako hondakindegia bateko gasean. 0,5 dela onartzen da.

